



ESTATUTOAK ETA AFILIAZIOA



DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

1981eko Martxoan

Tx 10014

## ESTATUTOAK ETA AFILIAZIOA

### LABEKO KIDEA IZAN NAHI DUZUN EDO SARTU BERRIA ZAREN LAGUNORI

Elkarrekin aurrera jarraitu baino lehen komenigarria iruditzen zaigu LAB zer den ezagutzera ematea eta LABeko afiliatu bezala dagokizun jarrera jakinaraztea. Herri eta Klase bezala pairatzen ari garen zapalkuntzak banatu ezinezkoak direlako, LABek bi aspektuon aurkako burrukak uztartzen ditu, hots: Ugazaben eta en presarioen eskuz jasatzen ari garen hurrupaketa kapit<sup>u</sup> lista eta "Aberriaren batasun sakratuaren" izenean jas<sup>an</sup> behar dugun zapalkuntza nazionala. Bi faktore hauek, era aldaezinean mantentzen dira benetako erregimen fazista batetan edo bizin garen bezalako fazismoz jositako demokrazi burgesetan, zeren eta batak zein besteak, herriaren gain eta langilegoaren gain ezarritako bortxakeriz espaniar klase menderatzailearen jabetasuna zinatzen dute. Arrazoi hauegatik erresistentzi antifrankista garaian sortutako burruka mota guztiak erabat erabilgarriak dira oraindik: greba orokorra, langile piketeak, enpresarioen atxilotzeak, etab., eta haiek, Herriak egoera berri bakoitzean asmatzen ditue<sup>n</sup>ekin batera doaz.

Burgesiak, bere mertzenarioak(poliziak, Goardia Zibilak, Militarral, Ultraeskuineko terroristak, ertzainak) ezartzen duten bortxakeriara jotzen badu, langilegoak eskuartean dugun edozein tresnataz erantzuteko es<sup>u</sup> kubide osoa dugu.

LAB, langile klasea INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA diren azken jomugaraino gidatzeko ahaleginak egiten ari den erakundea da, baina bat bateko helburuak ahaztu gabe, hots langileen kontzientzia eta burruka maila hobeagotzeko ere, gatazka etengabean jarraituko du, h<sup>a</sup> la nola, beste erakunde aurrerakoi eta herrikoiekin ko<sup>n</sup>ordinazio estuak sor daitezten.


LABek lantegi barruan dihardu, krisis egoera honetan larresplotazioa gehitu nahi duen ugazaberiaren ofentsiba kamus dezan. Eta gogor erasoko dio baita ere, kapitalaren egitasmoei zuzenean edo zeharka lagundu nahi dion edozein saiori; gaur egun egitasmu horien kostua (langabezia handiagotzea, soldaten izozteak, produktibitatearen gehitzea, produkzio sailen birmoldatzeak, etab.) langilegoaren bizkarretara zamatuta nahi dutelako; nahiz eta horretarako ELA, UGT eta CC.OO. di-tuen mintzaide ezinobeagokin kontatuz.

Langile guztion batasunaz egindako mobilizaketak lort dezake bakarrik balantza gure aldera mugitzera eta behin betirako egia bihurtu honako lelo hau "Krisisa kapitalistak ordain dezatela". LABek ez du sinesten lau "sasi-jakintsu" eta ugazaberiaren arteko negoziaketak gure interesen alde ezer defenda dezakeenik, langile beraiek ez badute negoziaketak kontrolatzen, beraien mugak ezartzen eta bere burruka indarren bidez zuzentzen. LABek ez du zerikusirik ELA, UGT eta CC.OOekin, traizioarekin eta burgesiarekin bat egiteaz eguneroko iharduketa egiten baitute.

LAB, bere ekintza antikapitalistarekin ados dagoen guztiarekin elkartuko da fabrika barrutan alderdikeriak alde batera utziz. Baina LABek salatu egingo ditu erreformistak eta hauek har litzaketeen jarrera guztiak.

Edozein afiliaturi beharrezkoa zaio sindikatuaren ekinaldi guztietan parte hartzea, bai barrukoak direnean (bilerak, propaganda ekinaldiak eta formazio ikastaroak), bai kanpokoak izanik ere langileen interesen aldekoak direnean; hala nola, xede honen barruan, fabriketan ematen diren burruketan zein gizartearen beste edozein arlotan.

LABek burruka leku bat eskeintzen dizu, konbentziturik dagoelako langilegoa kapitalarekin enfrentatzeko organizatzea, aukeratu dugun bidean aurreratzeko garrantiarik onena dela.



## LABen EZAUGARRIAK

### LANGILE ERAKUNDE NAZIONALAREN GAURKO EZAUGARRI BEHARRERZKOA.

Hego Euskadi historikoki, klase burrukaren hesparru berezi bezala ezagutu izan da, herriaren eta langileen eskakizunak hedadura eta erradikaltze maila gorenetera iritsi diren hesparrua. Hemen, eskakizun hauek, JARRERA IRAUNKOR BAT adierazten dute, gure herriaren azken 25 urteetan zehar eman den konstante historiko bat, alegia.

Burruka gure aldekoa den hesparru honetan aurkezturik sortuko ditugu kapitalaren eta beroien errepresio-asimilazio bideen aurkako gatazka jarraitu ahal izateko baldintzarik hoberenak.

Beraz, barruti Nazionaleko Langile Erakunde bat.

### BURGESIAREKIN KIDETASUN GABEA


Erreforma frankistaren azken urteotan, kapitalaren egitamuak aurrera ateratzeko behar den langilegoaren kidetza lortzeko ahalegin lotsagabeenen lekukoak gara, edo txarragoa, langileok, Frankoren babespean gizenzen oligarkiaren eskuetan eskuz eta ankar loturik utzi nahi gaituztenen saioen lekukoak gara. Eta negargarria da, estrateji hau exkerrekoak omen diren indar politikoaren eta sindikalen oinarritzko elkar kidesunaz mantentzen eta garatzen dela.

Ez dago aipatu beharrik ere mila aldiz aipatzen dizekiguten betiko lelo hauek: Oligarkiaren errekonbertsioak ekarriko digun langabezia jasan beharrezkoa zaigula; edo langile sailen(plantilen) eraberritzeak ere jasan behar ditugula edo laguntza sozialen murrizketak, etab; azken finean eskatzen digutena zera da: gurea ez den negozio horretan guztion parte hartzea. Eta gure erantzuna, EZETZ da.

Beraz, LANGILEEN ALDEKO, LANGILEENA ETA LANGILEENTZAKO ERAKUNDE BAT behar dugu.

## NORTASUN BILKORRA

Langileon arazoak ez dira lantokietara mugatu behar soilik; hauzoetan garraioetan, irakaskuntzan eta kulturalgintzan dugun nahimenekin ere zerikusia handia dute; herria jasutzen ari den errepresioari buruz ere badugu zeresanik; gure herriaren nukleariztatzearen gain ere iritziak emateko eskubidea dugu; benetako askatasun demokratikotaz ere bai, noski; eta nola ez marginazio sozial eta sezistari buruz; hitz batez esan da, herriko maila popular eta demokratikoak suspertuz eta zuzenduz eman behar den pauso historiko erabakiorraren egileak langileok gara eta horren testigurik zuzenena historia bera da. Eta gu, XEDE ZEHATZ HONETARUNTZ ERATU BEHAR GARA.



Ez dago zalantzarik Sindikatuak arreta handienaz begiratzen diola arazo gertuenetan parte hartzeari, hala nola, langileek dituzten honako beharrian hurbilenei: Krisisa, negoziaketa kolektiboak, langile sailaren birmoldaketak, etab; baina guzti hauek Euskal Herriaren eta langilego osoaren esperientzi handienetik eta zabalenetik zehar iragan behar du.

BERE ASMOZ ETA IHARDUKETAZ BEHARRIZAN EKONOMIKOEI, POLITIKOEI ETA SOZIOKULTURALEI HELTZEK ETA ERANTZUTEKO KAPAZ DEN ERAKUNDE LANGILEKOIA. HAU DA, SINDIKATU SOZIO-POLITIKO BAT.

### BATASUNARI BURUZ

LABek langileen batasuna beharrezkotzat jotzen du. Eta, adierazten du langileen BATASUNA eta herriko sektore demokratiko guztien batasun honen zuzenketa eta susperketa lanak guztiz beharrezkoak direla a historiari erakusten digunez.

Baina batasun hau ez da mito hutsa edo berez dena lort dezakeen fetitxea, BATASUNA ez da izatez, azken jomuga bat. Lorpen berrietara lagun diezagukeen batasun bakarra, kapitalaren egitasmoen aurkako burrukan eraturakoa izango da. Batasuna ez da mekanikoki gartzen, holakoa, mamirik gabeko oskol hutsa gertatzen da. Batasuna ezin da deslotu une historikoari dagokion beharrizan eta eskakizunak bereganatzen duen burruka egitasmo orokorretatik.

Batasuna BURRUKARAKO EGITASMO OROKOR bati lotu gabe, kapitalarekin kontzentsuak eta itunak egiten bukatzen duten hiruzpalau burokrata profesionalen eskuetan erortzen da beti.

Ez dago gogoratu beharrik langilegoaren eta herriaren dinamika berezkoak zapaltzeko eta estaltzeko benetakako harlosak diren Monkloako Paktoa, Akordio Markoa, Langileen (aurkako) Estatutua, etab.

### SINDIKATU ASANBLEARIOA

Egungo etapa historikoan nabaria da Euskal Herriko langilegoaren zatiketa, aukera ideologiko-politiko desberdinak direla bide. Bistakoa da ere bai, zatiketa sindikala,

LAB, joera sindikal desberdinen ibilbideko partaide da, baina bere eguneroko iharduketa eta bere historia testigu zuzenak dira, bere estratejia guztia eta eginkizunak, lantegi bakoitzeko lankide guztien ASANBLADA iraunkorki mantentzean oinarritzen dituela. LABen ustez, ASANBLADA da lantegi bakoitzeko problemak



era demokratikoenean eta konformagarrienean planteatzeko eta konpontzeko biderik egokiena, hau baita, "eraba kietarako eta eztabaidetarako erakunde nagusia". LABentzat ASANBLADA da BURRUKA bidez gorputzen den eskola eta tailerra.

### SINDIKATU IRAULTZAILEA

Langile erakunde bat: bere eginkizun berezietan (lantegiak, eraikuntza, nekazaritza) parte hartzean oinarrituz, munduko Herri orok heien askatasun sozial eta nazionalerako historikoki erabili dituzten burruka bide guztiak erabiltzearen beharra ikusten duen erakunde.

## GURE BEREHALAKO EGINKIZUNAK

### HAUSTURAREN ALDE

Sindikatu guztiak esaten digute, gauden egoera larri honetan egonik, langileon helburua erreforma zatiak lortzea izan behar dela. LABek ez ditu erreforma honek arbuiatzen, baina argi eta garbi utzi nahi dugu gure helburua egoera hau hausten dela eta bakarrik haustura lostuz ahal izango dugula beste nahimen politika eta sozial hobeagotara jo.

Kanpotik ezarritako lege errepresiboen aurka burrukatzen dira langile guztiak, edo auskalo zeinek paketatutako soldata topeak hausteko burrukatzen direnak, edo lanpostua mantentzeko, edo, kontzienteki edo inkontzienteki, langile kontrolaren alde burrukatzen direnak, hausturaren alde dihardute eta hauengana zuzentzen gara. Baita ere, gaur egun desmoralizatari aurkitzen diren langile guztiengana zuzentzen gara, LABen informan elkar daitezen eskatuz.

### AUTOERAKETA INDARTU

Nahiz eta dagoeneko beste sindikatu guztiak kontra jarri, gauden Batzordeetatik asanbladak potentziatuko ditugu; hauen subiranotasuna eta Batzordearen lotura eskatuz; baita ere eskatuko dugu, komiteak asanbladaran akordioak bete ditzala.

Eta lantokietatik kanporako krisisean dauden Enpresetako ordezkarien koordinakundeak indartuko ditugu, geioago eta garbiago dagoelako bakarrik gelditzen den fabrika, eginahalak eginda ere azkenean galtzen ateratzen dela.


Baita ere potentziatuko ditugu langileen problema eta burruken koordinazioa mugimendu herrikoietan, ekologistekin, feministekin, gaztediarekin, etabarretan, ez gaitezen gure burruka ekonomikoa dela soilik pentseta den akatsean eror eta ez dezagun, gure burruka, beste problemetatik deslotu.

Guzti horrekin irakatsi nahi diegu Langile guztiei; defendatzeko eratu egin behar gara, zeren eta alde-rantziz, inork ez digu gure problemak konponduko.

## KLASE ETA NAZIO SINDIKALISMOA FINKATU

Ez gara besterik gabeko langileak, askatasun Nazional eta Sozialagatik burrukatzen den herri zapaldu bateko langileak baizik. Horregatila, langileok gara euskararen alde gehien burrukatu dugunak, edo Nafarroa jauntxo nafar-espainolisten eskuetan ez uzteko, edo batasun eta askatasun Nazionalaren alde, badakigulako burruka honen indar iraultzailea norainohoa den.

Andalucia, Paisés Catalans, Galizia edo Nicaraguako burrukak gureak ere badirela ahaztu gabe, zuzendaritza Euskadin duen bertako langileentzako Sindikatuaren sendotze bidean aurrera jo nahi dugu.



Guk, Euskadi, klase burrukaren hesparru autonomo bezala definitu dugunez, hesparru horretako beharritane*i* eta problema bereziei erantzuna diezaiokeen sindikatu bat eraiki nahi dugu.

## LEGISLAZIO ZAPALTZAILEA APURTU


Gu, indarrak laguntzen diguten neurrian, legislazio zapaltzaile hau apurtzera goaz lantokiz lantoki eta fabrikaz fabrika geure aranak ezarriz: aldiz aldizko asanblada subiranoak, asanbladei lotutako batzordeak, plantilen kontrolak, etab.

Langile Estatutoa fabriketan bertan garaitzeko burrukan ezarriko ditugu geure indarrak (U.G.Tek defende dezala nahi duen bezala), hala nola, Euskadi Lan Harremanetarako Hesparru izan dadin eta ez ELAK aldarrikatzen duen bezala Hitzarmen Kolektiboetarako Hesparru hutsa.

#### LANGILEEN KONTZIENTZI POLITIKOA GEHITU

LAB, hausturarako alternatiba politikoa (KASen alternatiba) onartzen duen erakunde sozio-politiko bezala definitzen dugu, aldiz beste batzuk neutroak edo apolitikoak direla esanez "betiko jaunen alde zaunkatzen dute" edo langileak defentsa ideologikorik gabe uzten dituzte ugazaben eskuetan.

Guk, problema politikoak fabriketara eramango ditugu eta lantegietako problemak hauzoetara elkarrengandik ezin daitezkeelako banatu, amnistia eta ugazaberiarren zapalkuntza dauden bezalatsu.



Bate bestearengandik bereizten duenak, langilegoa zatitu, nahastu eta UCDri jokua egiten dio.

### LANGILEI EGITAMU BAT ESKEINI

Aurrerago ikusiko dugunez, krisisa eta langabezia-  
ren kontrako egitasuna zabaldu nahi dugu, geure intere-  
sen eta beharrianen defentsarakoa.

Dakusasuenenez, gure helburuak handinahizkoak dira.  
Denon eginahalak beharko ditugu lortzeko. Horregatik  
laguntza eskatzen dizugu eta aldiberean bertan gauden  
milaka lagunekin gure sindikatu barruan eratzea eska-  
tzen dizugu, BEHAR DUGUN KLASE SINDIKATU IRAULTZAILE  
hori sortzeko.

### ESKUHARMEN EGITARAUA

LABen interbentzioa edo eskuharuena, hausturaren al-  
deko burrukan oinarritzen da, eta hau lortzeko bide ba-  
karra, gatazka eremu guztietan ematea da; ez bakarrik  
eremu politiko hutsean, sindikalakan ere baizik, naba-  
ria baita bata zeinbestea elkarri loturik daudena.

### HAUSTURA POLITIKO SINDIKALERAKO EGITARAUA

a) HAUSTURA POLITIKOA. LABek haustura politikoa, KASen  
alternatibaren puntuak defendatzean oinarritzen du.  
Zentzu honetan, justu justuan bizitzeko burruka baino  
areago, Euskadiko langileak BIZI AHAL IZATEKO egoera  
sortzera goaz. KASen alternatiban sartzen diren askata-  
sun nazional eta sozialerako gutxiengozko puntuak lor-  
tu gabe, Euskal Herrian ezin izango dugu demokraziari  
buruz hitzegin.

b) BURGESIAREN PLAN EKONOMIKOEN HAUSTURA. Funtsean ho-  
netan datza: Kapitalak langabezia oinarritzen dituen  
birregituraketa planen kontra burrukatzean eta erre-  
konbertsio industrialerako planen gaitzestea, beste  
planen artean, Lemoizko Zentral Nuklearraren funtsiona-  
mendua dakarrelako.

c) PAKTU SOZIALAREN ONARPENARI UKO EGITEA. Krisisa kapitalarena denez berak ordain dezala. Gogora ditzagun Monkloako Paktoarekin egin zizkiguten promesak eta nola, betetzerako orduan, krisisa langileen bizkarreta zamatzen zuten akordioekin gogoratu zirela bakarrik. Hori da kapitalaren betiko filosofia eta iadanik ezin dezakegu sorginkeritan sinets.

d) LANGILEGOAREN ETA EUSKALHERRIAREN AURKAKO LEGIZIAZIOAREN HAUSTURA.- LABek, euskaldun eta langile bezala eskuz eta ankar lotzeko zuzundutako legeen mugak(Langileen AURKAKO Estatoa den bezala) gainditzeko buruketako du, hala nola, Hego Euskal Herrirako Lan Harramantareko Hesparru Autonomo bat lort dezagun.

Hauxek dira LABen programa edo egitaran orokorraren puntuak. Halere, LABek lantoki bakoitzerako eskuharmenerako ondorengo plataforman oinarritzen diren gutxiagozko puntu batzu proposatzen ditu:

1.- Edozein momentutan erakunde erabakiorra bezala Asanbleda Nagusia Orokorra potentziaztea.

2.- Batzordearen eta Asanbladaren enpresa barrurako zein kanporako egituraketa.

3.- Langileen ostean egiten diren hitzarmenak eta edonolako langileen aurkako ekintza guztien informaketa eta salaketa.

4.- Lantegiko Asanblada Nagusiak onartu gabeko ezer ez baieztatzea eta ez sinatzea.

5.- Gauza denen gainera, lanpostu guztien iraupena defendatzea eta ezartzea.

6.- Euskara, bizi dadin, beharrezko egituraketaz hornitzea, lantoki bakoitzean ikastolak sortzea eskatuz. Ezin dezakegu onartu euskara ito larrian bizi ahal izateko, rifak, jaialdiak eta futbol partiduak egin behar izatea. LABen ustez, funtsezkoa eta oinarritzkoa da, maila guztietan dohainik izan behar den Euskal Eskola Publiko baten zuzperketa eta ezarpena.

7.- Gorriak ikusiko ditugula badiogu, inork ez dezala pentsa derrotista garenik. Burgesiak eta erreformistek izkutatu egin nahi digute krisiak eta langabeziak irtenbiderik ez dutena. Ba, aprobeixatu dezagun baztertu

ezinezko sufrimendu hau geure probetxurako, baina ez krisisetik irtetzeko, krisisean dagoen kapitalismotik irtetzeko baizik. Hortarako, LABek gogor burrukatuko ditu kapitalaren aldeko eskeintza guztiak (produkzio erritmoen gehitzeak), langilegoa apartzearen aldekoak (soldata tanletako desberdintasunak, bulegoko eta tailerretako langilentzat harreman desberdinak), burokraziaren sortzaileak (ordezkariei hitza kentzeko eskubi-dea) eta, lantokietan langile kontroletik urrutiratzen gaituztenak.



## K.A.S. BLOKE GIDATZAILEA


Erreformatarako proiektuaren helburua, frankismo eraberrituaren jarraipenerako bizibeharrezko egoerak sortzea da, bere kanpo-itxura ondo apaindu eta burua, gero eta faxistagoak diren MCEko modeloen antzeko sasi-demokraziz maskaraturik aurkeztu ondoren. Estatuko burgesiari eta Euskadikoari, guztiz premiazkoa gertatzen zaio naziozganđiko erakunde horretan lehenbait lehen sartzeari, krisialdi latz hau gaindi dezan. Kapitalismo hispaniarra leporaino murgildurik dagoen larrialdi hau, eta ekonomikoa ez ezik politikoa, soziala eta kulturala ere badena, ez da gaurkorako bakarrik, luzaroan pairatu beharko duguna baizik, general txiki eta odol-zaleak, Espaina deitzen zaion estatu mamutzar horren instituzioei soineratu zion eredu orokorraren akatzen ondorioak dakarrelako.

Krisisaren irtenbide orokorrak, estaduko langile klasearen burruka indarrak balaztatzea eta ahultzae behar du -eta bereziki euskal langilegoarenak- hala nola, askatasun nazionalerako prozesuak moteltzea. Burgesia nazionaleko alderdiak, eta ezker erreformistakoak eta hauei loturik dauden sindikatuak, Erreformaren "deskafeinatze" lanak errazteko legalizatu zituzten. Eta bai ondo bete ere paper hau, langile klasea desmobilizatzen eta nazio eta klase askatasun prozesuak arriskutsuki balaztatzen duen bilbe instituzionala (egundoko Paktu Soziala den Monkloako Estatutua bereziki) onartuz.

KASen alternatiba taktikoa Haustura Demokratikorako Alternatiba da; estatuaren aparatua oso baldintza demokratikoetan birmoldatzeko, non alderdi guztiak legalizatuko baitira, lehengo estatu faxista desagertuko eta estaduko herrialde guztien autodeterminatzeko eskubi-deak onartuko.

Jakinarazi beharrezkoa da, KASen alternatiba taktikoak ez duela iraultza esan nahi, baina bai berelortzenak, benetako nolakotasun saltoa, hau dakarrelako:

1.- Herritar Batasuna: Euskal Herria politiko, sozial eta ekonomi alorretan jasatzen ari den krisis sakonari aterabide bat eman nahi dioten langile sektore guztiak biltzen duena. Hain zuzen ere, HB, KASen alternatiba taktikoaren puntuen alde elkartzen diren langile masen ondorioa da.



Herritar Batasuna, zatiketa klasikoak(kapitala-lana) Euskal problematika guztia uztartzen ez duelaren onespenean oinarritzen da, sektore jakin batzu sozialismoarako burruka bidearekin ados daudelako, nahiz eta sektore hauek funtsean, langile kolektiboak ez izan(arrantzaleak, baserritarrak, sal-erosleak txikiak, langilr autonomoak, irakasleak,...) Historikoki langilegoa izan bada ere aldakuntzen benetako eragilea, eta baita ere, antolaketa eta burrukarako ahalmen handiena duena, alperrikakoa izango litzaioke bere burruka, herriaren beste zati hauek ez balute bematuko edo apiatuko; eta herriko kolektibo zabal hauek dira, hain zuzen ere, geure proiektu iraultzileruntz erakarrri behar ditugunak burgesiaren eskeintzen alde joaten utzi baino lehen.

2.- Epe eratzilea. Epe haoentan, Estaduaren aparatoen ahultasun eta aldakortasun soziala agertuko da eta ondoren, Estadu Federala bihurtuko da ezinbestean. Epe honetara, LANGILE KLASEAREN INGURUAN GORPUZTUTAKO, herriaren kontraindarraren (EHBna bereziki) eratze, susper tze eta sendotze burruka luze eta gogor baten bidez iritsiko gara. Epe honetan, langilegoa, abangoardia iraultzaile bezala eratzn bada, Euskadiko epe eratzilea geldiezinezko prozesu iraultzaile bat bihurtuko da.

Baina KASen alternatibaren ondorioak lortzeko, beharrezko du langilegoak, behar bezaingo burruka indar eta tresneria eskuratzea, eta hau KAS bloke barruan lort dezake bakarrik. Jarraikian, ondoko proposamena arrazoituko dugu: "KAS BLOKEA, KAS ALTERNATIBA LORTZEKO BIDE BAKARRA".

KAS, ez da alternatiba taktikoa, ezta estrategikoa ere, ezta indar batzuk, beste aukeren gainera, akordioak egiten dituzten mahaia. Indar edo SIGLA BILKETA


ere ez da. KAS horrela bururatuz, ez litzateke bakar batzuentako egitama baina besterik izango edo beste batzuen aldeko akordioak hartzen diren mahai bat.

KAS, arazo nazionaletan eta sozialetan burgesiari aurpegia emateko era guztien ERAKUNDE BILTZAILE bezala jaio zen. Hala ulertuz gero -eta hau da ulerbide bakarra- KAS, burruka politikoa, ekonomikoa, armatua, soziala, popularra, kulturala, feminista, homosexuala, ekologikoa, etabar lotzen dituen blokea da; burruka indar guzti hauen lotzeak ONDORIO BILDERKATUAK dakar eta ez batukatuak; KASEk, burruka eremu guztiak elkartuz eta lotuz, BIDERKATU EGITEN DU, ETENGABEKO ERREAKZIO PROSEDURA BAT BALITZ BEZALA, eremu bakoitzean garatuta ko indar iraultzaile bakoitza. Prozedura iraultzailearen zuzendaritza, blokearen partaide guztien arteko akordioak, koordianketak eta bilketak osatzen du. Blokeko indarrak ez daude edozein zuzendaritza politikoa-ri loturik, baizik blokearen bertan sartu orduko onartu behar dute beren buruen partaidetza, zuzendaritza hortan. "Zuzendaritza" elkarren arteko lana izaterakoan, ikuspegi klasikoko "zuzendaritza" zentzua deuzetzen da.

Bloke barruko prozesua elkarri loturik dago osooan; hau da, KASen kide guztiak dute parte hartzea, eta KAS barruan, analisiak eta erabakiak, KASEko edozein partaideak BALDINTZA DEZAKE bere iharduketa bideak ezarri, eta jokaera honek KASen barruan eragin berria dakar berriz prozesu iraunkor bat mantenduz.

Blokearen osakinak KASengan duten eragina, zein KASek osakinengan duena, etengabea, gehikorra eta amaigabea da. Ikuspegi honetatik KAS barruan benetako pisu

berezia izango duen erakundea INDAR IRAULTZAILE GEHIEN ESKEINTZEN duena izango da. Historikoki, independen-  
tzia lortu duten nazio guztietan, ahalegien eta zuzen-  
daritzen zama astunena erakunde armatuak bizkarreratu  
dute. Euskal Herrian era gauza berbera gertatzen da  
eta KASeko erakunde armatuak, ETAk, mantendu du KAS,  
erreformismoaren tranpal eta ezkerkerietako joerak gain  
ditzeko behar zen ildoaren barruan.



Askotan ETA izan da abagadune lopitikoa zehazkien analizatu duen indarra, burruka armatuaren metodoak, berez dakarren erradikalizazioaz, erabat ezabatzen dituelako erreformismoa erortzeko arriskuak. Hau onartzeak, Euskal Herriaren azken urteotako historiaren irakurtzea esan nahi du soilik. Egiazko eta ageriko da tu hau onartzeak ez du esan nahi ETA mitifikatu egiten denik edo Ediporen konplejoarekin gabiltzanik. Honetaz konturatzeko aski da itsua ez izatea edo erreformismoan erorrarazi gaitzakeen teorizazioaz gogaiturik ez egotea. Beste erabatera esan da, zeinek zein maneiatzen duenaren problema ez litzateke azaldu ere egin behar KAS barruko erakunde desberdinen artean, KASeko ATAL GUZTIOK ESTRATEGIA IRAULTZAILE BAT ONARTU DUGULAKO.


KAS bloke gidatzaileak, masen bapatekotasunaren eraketa errazten du, burruka zatitu nahi dutenen iharduketak baztertuz eta, bestalde, gaur egunerako behar hainakoak ez direla demostratu duten erakunde marxista-leninistak alde batera utziz, langilea hauen aurrean nahiko ukakor azaltzen delako. Gainera aipagarria da baita ere KAS barruko erakundeen artean, "aldari gidatzailearen" ideia mantentzen dutenen aurrean, erakunde armatua barruan egon daitekularik, jarrera erreformista etsipengarrietara jo ondoren egituraketa "politiko militarra" birsortzea suposatuko lukeela asmo horrek.

KAS bloke gidatzaileak, alderdia kolektibo intelektual eta iraultzaile bezala ikusten du, eta beta historiko bakoitzean, dagokion zuzendaritzaren arduraketa berezia garatzeko prest egongo da.

Horrezaz gain, KAS bloke gidatzailea, abagadunekerietatik at dagoen zentzuan, une historiko bakoitzean burgesiak eskatzen duen erantzun beharretara egokitzen den KONTZEPTU DINAMIKOA DA. Ildo honetan, alternatiba estrategikoa ALDAEZINA den bezalaxe (independentzia eta sozialismoa), alternatiba taktikoa ALDAKORRA da; herri langilearen beharrianetara egokitzen da une bakoitzean. Gaur eguneko alternatiba lortuz gero, beste bategatik aldatuko genuke, KASen bidez HAUSTURA PROIEKTU MAILAKATUA (nolakotasun pausuak emanez), AZELERATUA ETA AMAIGABEA jarraitzen dugulako.

Blokeko indarren arteko koordinaketa hau da hain zu zen ere, behar dena burgesiak BURRUKA ERRADIKAL BATIK ERE (langileena, armatua, politikoa) EZ DEZAN BAKARTU. Burruka mota hauetako edozeinen parte ez hartzeak blokearen AHULTZEA nahiko luke esan eta aldiberean, burgesiaren botereak blokea BAKARRIK UZTEKO ETA DEUSEZTEKO behar duen oinarriak jartzea.

Bestalde burruka eremu bakoitzean behar den autoeraketa ez da BESTE BURRUKA EREMUETATIK APARTE EGIN BEHAR DEN LAN BAKARTIA; eremu bakoitzean, era batea edo bestera, elkarrenganako eragiketa eta potentziaketa eman behar da. Hau KASen ezaugarrietako bloke baten barruan lort daiteke bakar-bakarrik.



## KAS-EN ALTERNATIBA TAKTIKOA

1.- ANNISTIA: TAKTIKOKI EUSKAL PRESO POLITIKO GUZTIEN ASKATASUNA BEZALA ULERTUZ.

2.- LIBERTATE DEMOKRATIKOAK: ALDERDI POLITIKO GUZTIEN LEGALIZAZIOA, HORRETARAKO INDEPENDENTIS TEK BEREN ESTATUTOAK JETXI BEHARRIK GABE.

3.- EUSKADITIK G.C., P.A., eta C.G.P.-akoen BOLA-KETA.

4.- HERRI ETA BEREZIKI LANGILE KLASEARENTZAT LAN ETA BIZITZA BALDINTZEN HOBEKUNTZA.

5.- ONDOKO BALDINTZA HAU BETEKO DITUEN AUTONOHIA ESTATUTOAREN LORKETA:

- HEGO EUSKADIKO LAU PROBINTZIA HISTORIKOETAN UNE BEREAN PRAKTIKA BIHUR DADILA.
- EUSKADIRENTZAT NAZIONAL SOBERANIAREN EZAGUPENA. AUTODETERMINAKETARAKO ESKUBIDAREN ONARKETA. ESTATU INDEPENDIENTE ETA PROPIO BATEN SORRERARAKO ESKUBIDEA SUPOSTUAZ.
- EUSKARA EUSKADIN LEHEN HIZKUNTZATZAT ONARTUA DADILA.
- IFAR ETA HEGO EUSKADIREN ARTEKO HARREMAN NAZIONALEN EZAGUTZA.
- EGUNGO INDAR ERREPRESIBOEN LEKUA HARTUKO DUTEN HIRITAR DEFENTSAKON INDARRAK EUSKAL GOBERNUAGATIK SORTUAK ETA BEREN MEMPEKO DAITEZELA.
- EUSKAL HERRIAK HAINBAT PODERE IZANGO DU NON AURRERABIDERAKO ETA ONGITASUNERAKO UNE BAKOITZEAN BEHARREZKO ZAIZKION EGITURAKON EKONOMIKO, SOZIAL ETA POLITIKOAK HAUTATZEKO AHALMENA IZANGO BAITU.



## LURRALDE ERAKUNDEEN OSOKETA-FEDERAKUNTZAK

Iragan urriak 10 Batasun Nazionalak, Sindikatuaren organu subiranoan Konstituiturik, ondoren ematen diren akordioak, eta Idazkaritza Nazionalak desarroilatzeke eta Sindikatuan zehar zabaltzeko ardura hartu zituenak, ahobatezhiru abstentzio salbu arabaki zituen.

1.- Kapitalak krisiatik irtetzeko aurkitzen duen ir tenbidea, haren kostua langileen gain botatzeko bere betidaniko filosofia da. Espainol Estatuaren Oinarrizko Legea, Langileen Estatutoa, A.M.I. eta A.N.E. delakoak nabarmentzen dira. Ohiturazko zentral sindikalak burges planen zerbitzurako besterik balio ez duten burokrazietan bihurtzen dira lotura mota hauen bidez. Eta bere jokaera eremua gaur eguneko marko instituzional-laboralera mugatzen duen beste edozein aukera sindikala gaur eguneko egiturek deuseztatua da. Langile mugimenduaren egoerak, krisi politiko eta sozialerako prozesuan aurreratzeke, sindikalismo klasikoaren balio gabetasunak, LAB langileen benetako erreferentzi puntu bat izatea errazten du. Hau Sindikatuaren militanteek etorkizunean desarrailatuko dugun lan dedikazio mailaren aranera dago bakarrik.

2.- Ormaiztegiko gure kongresutik eta KASeko beste erakundeek lehenago egindakoetatik, analisi eta aurre kuspenak ia bere osotasun guztian baieztatuak izan dira. Hau gure analisiaren belioaren eta, beraz, KAS eus kal prozesu iraultzailearen bloke zuzendaritzat birbaieztatzen deneko erakusketa argia da. Ormaiztegiko gure kongresuan garbi geratuzen KAS bloke zuzendariaren konzeptoa ez zela zerbait estatikoa, prozesuaren alde bakoitzean aurkitzen garen errealtateari loturik dagoela baizik, eta ondorioz beharrezkoa dela bere sarkonketa egunetik egunera. KAS bere kojunturazko analisien eta bertari gurutzatzen diren borrokera desarroiloaren bidez egoera politikoan zuzeneko inzidentzia dauka, bai bere aldatzeko, bai helburu taktiko-estrategikoetan aurreratzeke baldintzak sortzeko, Erreforma-ren prozesua etengabeko zalantzan jarriz eta horrekin konprometutako indar erreformista eta sindikalen planak desestabilizatuz (PCE, PNV, EE, PSOE, ELA, UGT, CC OO.).

Zerbait kojunturatan gure prozesuaren desarroiloak duen abiadura eta intentsitatea kontuan hartzen baditu gu beharrezkoa da Sindikatuak kongresuan hartutako erabakian arintzea. Erabaki hauek momentu determinatu bati buruzko analisiak dira batzutan eta epe motzerako aurreikuspenak bestetan, eta ez litzateke zaila izango, KASen jokaerak sortzen dituen kontraesanen sakonke tagatik, hurrengo kongresua baino lehenago baliogabe tuak edo eztabaidatuak gertatzea.

3.- Gure barne egitura edo organizazioari dagokionez gure lan nagusiak LABen sendotzea izan behar du, horretarako jokabide eta lan zentru guztiak erabiliz.

LANTEGIA DA GURE ORGANIZAZIO NUKLEO FUNTSEZKOENA; GURE JOKAERAREN OINARRI ETA ZIMENDUA, BAI ETA EGUNERO ETA ETENGABE GURE LANA ETA GURE BORROKA DESARROILATZEN DUGUN MARKOA.

Zonak, organizazioaren berezko markoak, borroken batasuna eta globalizazioa errazten du, bai eta lantegia ren borroka bere marko hutsera mugaturik ez aurkitzea, eta kapitalaren ofentsibari erantzun globalak emateko gai izan gaitezela ere.



Federakuntzei buruz beharrezkoa da honako zahaztasunak egitea:

A) Demokrazia burgesa eta bere instituzioak klase nagusiak behin eta berriz eta indarkeriz ukatutako eskakizun herrikoia izan ziren. Herri borrokak aginteko klasea printzipio demokratiko formalak onartzera behar tu zuen, baina hau, gaur egun, bere probetxuan erabiltzera heldu da. Hala ere instituzioak garai, leku eta era aproposetan erabili ezkerro baliagarrik gerta dekiz kieke langile klaseari eta herri-kapei.

B) Federazioaren helburua, langile klasearen eskaki zun eta kreaio berezia izarik, klase hautabidea lante giaren markotik kanpo ateratzea da. Garai batean kapiyalak berak ukatua, gaur egun langile borrokaren hedadura eta globalizazioa galerazteko erabili nahi du. Ha la ere, eta momentu kojuntural konkretuetan, sektorean borroka, ezker abertzaleak borroka instituzionala enfo katu duen eran ulertua izango da. Hau da, gure klase hautabideak aurreratzeke aukera emango duen garaian, lekuan eta eran, sektore markoa gaingiditzeko eta inguru ekonomiko eta laboral guztira zabaltzeko ahaleginak eginez. EZ DEZAKEGU FEDERAZIOETATIK SINDIKATU BARRUKO TOKIBAKANAK EGIN, GAINONTZEKO SEKTOREETATIK ETA GURE HERRIAREN EGUNEROKO BORROKETATIK BAZTERTURIK.

4) Ormaiztegiko kongresuan erakunderako argi gelditu zen KASen konzepzio ez zela estatikoa, dinamikoa eta betiro sakontzekoa baizik. Horregatik beharrezkoa deritzaigu debate zabal eta bizia hastearibi gai hauei buruz:

a/ Sindikatua Erreformaren barruan eta krisi politi ko eta ekonomikoa.

b/ Sindikatua eta KASen indartzea.

Debate hau aurrera eramateko (txostenak eta abar) Idazkaritza Nazionalak basera eramana izango den plan bat egingo du.

5) Batasun Nazionalaren erabaki hauek Ormaiztegiko Kongresua desarroilatzea, nahi dugun sindikatu mota finka tzea, eta lurralde egituraren berezitasunari buruz Sin dikatuaren Estatutoek diotena errealitate egitea bilatzen dute.

Azkenik Batasun Nazionalak hauen eta geroko beste

Batasun Nazionalen akordioen erabateko onarpen militante eta iraultzailea eskatzen du, hauek baitira kongresuen arteko organu subiranuak.

Era berean Batasun Nazionalak, hautatutako jokaera politiko sindikalaren erabateko jarraipena egingo du, horretarako denona den lan zail honetan militante guztien ahalegin eta lankidetasuna espero duelarik.

LABeko IDAZKARITZA NAZIONALAK  
(K.A.S.)

Euskadi, 1.981eko Urrian.